



comgi

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa
Colegio de Médicos de Gipuzkoa

JARDUERA MEMORIA 2022



WWW.COMGI.EUS



943 27 63 00



Frantzia Pasealekua 12, Donostia





ELKARGOA, ZUGANDIK HURBIL



WWW.COMGI.EUS

COMGI LANGILEAK

Bulego teknikoa

Alberto Etxaburu
direccion@comgi.eus

Edurne Cristti
edurne@comgi.eus

Aiora Perdiguero
aiora@comgi.eus

Estibalitz Peña
estibalitz@comgi.eus

Aholkularitza Juridikoa:

Jon Pellejero
jpellejero@comgi.eus

Komunikazioa:

Ana Soro
prensa@comgi.eus

Fundazioa:

Ortzi Balda
coordinador@comgi.eus



COMGI BULEGOA

Helbidea: Frantzia pasealekua, 12
20012 Donostia (Gipuzkoa)
Harremanetarako:
Telf.: 943 276 300 / Faxa: 943 321 788
Emaila: info@comgi.eus

HORARIO

NEGUA

Astelehenetik ostegunera:
9:00 - 13:00h. eta 15.00 - 18.00h.
Ostiralak: 8.30 - 13.30h.

UDA:

Astelehenetik ostiralera:
8:30 - 13:30h.
Asteazkenetan:
8:30 - 17:30h.

2022 ABENDUA

LEHENDAKARIAREN AGURRA



Konpromisoa

2022 urtea urte bizia izan da. 120ko ibilbidea eta gero, lehen aldiz, emakume batek hartu du Elkargoaren lehendakaritza. Lehena naiz Gipuzkoan, baita Euskadiko beste Elkargoetako historian ere.

Urrats garrantzitsua da eta eman badut artikulua honen izenburuan daraman hitzak bultzatuta eman dut: konpromisoa. Nire ekipoarekiko, noski, eta Gipuzkoan sendagile diren elkargokide guztieekiko.

Ekainean hartu genuen Elkargoa gobernatzeko ardura eta jarduera eta proiektu askori jarraipena emateaz gain, gure helburu nagusia beharrak eta interesak zein diren identifikatzea izan da. Hala, datozen hilabeteetan horiei erantzuna ematen saiatuko gara, guztiongandik hurbilago dagoen Elkargo bat egiteko, erakargarriagoa, baina, batez ere, erabilgarria izango zaiguna.

Hori dena kontuan izanik, ondorengo lan ildoak aurreikusten ditugu 2023rako:

> Gobernu Batzordeko kideek koordinatuko dituzten lantalde desberdinen sorrera, esparru bakoitzean egon daitezkeen beharren inguruan hausnartu eta ekintza eta jarduera zehatzak martxan jartzeko.

> Hiritarrei zuzendutako jarduerak berreskuratzea, gizartearen osasun gaien inguruko heziketa indartzeko asmoz. Elkarte eta erakundeekin ere lan egingo da helburu berarekin..

> Euskerarekiko konpromisoa indartzea, Elkargoko komunikazio orotan euskara bultzatuz eta are gehiago, euskarazko jarduerak antolatuz, bai formakuntzarekin loturikoak baita jarduera sozial nahiz kulturalak ere.

> Mediuen Ahotza aldizkariaren Komite Editorialaren sortzea, jorratuko diren gaiak erabaki, adituak aurkitu, erreportajeen gaiak definitu eta elkargokideen parte-hartzea handitzeko.

> Mahai-inguru, eztabaida eta elkargokideen arteko topaketak antolatzea, hausnarketa eta ideien trukaketa bultzatzeko eta espezialitate eta adin desberdinetako elkargokideen arteko harremana sendotzeko.

> Elkargoko liburutegiaren berrantolatzea, bertako materiala hobeto antolatuta egon dadin eta elkargokideek kontsultarako erabil dezaten, baita eguneroko hedabideak irakurri eta iturri espezializatueta sarbidea edukitzeko ere.

> Jubilatutako elkargokideentzako jarduerak antolatzea, Senior Medikuntza Ikasgela berriro martxan jarri eta erretiratuta baina modu aktiboan bizi diren sendagileentzako topaketak eginez.

Aula Médica Senior y organizando encuentros y otras actividades dirigidas a las y los médicos retirados pero activos.

Ez zaizkigu helburu eta ideiak falta eta behar den gogoia eta konpromisoa baditugu. Zurekin lan egin nahi dugu, beraz, nire posta elektronikora idatz dezakezu: presidencia@comgi.eus


COMGI LANTALDEA

2022-2026

PARTE-HARTZEA, JARDUERAK ETA GERTUTASUNA

GOBERNU BATZORDEA

Ekainaren 16an ospatutako hauteskundeen ondoren, ekainaren 22an kargu hartu zuten Gobernu Batzorde berria osatzen duten kideek. Hauek dira:



**CARMEN
SOLORZANO**

LEHENDAKARIA



IÑAKI EIZAGUIRRE

LEHEN
LEHENDAKARIORDEA




**M^a BELÉN
LÓPEZ RUBIO**

BIGARREN
LEHENDAKARIORDEA



**MARÍA BELÉN
ALONSO
MACÍAS**

IDAZKARI NAGUSIA




**MIREN ELÍCEGUI
SAROBÉ**

IDAZKARIORDEA



**IGNACIO MARÍA
LOYOLA ECHANIZ**

DIRUZAINA



**ELIZABETH
BLARDUNI**

Sendagile jubilatuen
batzordekidea




**GASPAR DE LA
HERRÁN NÚÑEZ**

Medikunza Pribatuaren
batzordekidea



**MARÍA ASUNCIÓN
GUERRA ALONSO**

BATZORDEKIDEA



**IGOR LARREA
ARRANZ**

BATZORDEKIDEA



**JOSÉ LUIS RAMOS
GARCÍA**

Ospitaleen batzordekidea



**VÍCTOR M.
VERANO
ZAPATEL**

Administrazio Publikoen
batzordekidea



**NEREA DE SOUSA
ALCALDE**

Lehen Mailako Arretako
batzordekidea



**LOREA SARASUA
OIZ**

Tutore eta irakasleen
batzordekidea



**ARIANE EGIDO
AZKONA**

Sendagile gazte eta
enpleguaren sustapenerako
batzordekidea

BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorra lehendakariak, lehendakariordeak, idazkariak, idazkariordeak eta diruzain-kontulariak osatzen dute. Hilean behin elkartu ohi da, eta maizago gaiek hala eskatzen dutenean. Dagozkion funtzioen artean nabarmentzekoa da lehendakariaren eta lehendakariordeen txostenak jasotzea; horrez gain, elkargora iritsitako izapide-gaiek ezagutu eta horiei buruz ebazteaz ere arduratzen da.



**CARMEN
SOLORZANO**
LEHENDAKARIA



IÑAKI EIZAGUIRRE
LEHEN
LEHENDAKARIORDEA



**Mª BELÉN
LÓPEZ RUBIO**
BIGARREN
LEHENDAKARIORDEA



**MARÍA BELÉN
ALONSO
MACÍAS**
IDAZKARI NAGUSIA



**MIREN ELÍCEGUI
SAROBÉ**
IDAZKARIORDEA



**IGNACIO MARÍA
LOYOLA ECHANIZ**
DIRUZAINA

COMISIÓN DE DEONTOLOGÍA

Arau korporatiboak eta profesionalak errespetatzea eta elkargokideei errespetaraztea betebeharrak duen aldetik, Gobernu Batzordeari aholku emateko sortu zen Deontologia Batzordea.

Deontologia Batzordeak Gobernu Batzordeari lagundu eta aholku eman behar dio, bere betebeharrak arau korporatiboak eta profesionalak errespetatzea eta elkargokideei errespetaraztea baita. Beraz, Gobernu Organoek eta/edo elkargokideek proposatutako bere eskumeneko gaiek aztertu behar ditu. Hori egin ondoren bere ondorioen berri emango dio Elkargoaren Gobernu Batzordeari, baina ondorio horiek ez dira lotesleak izango batzorde horrentzat, aztertutako gaia edozein dela ere.

Komisioa, 2022ko abenduaren 31ean, ondorengoek osatzen dute:

Presidente: Jose Manuel SANTOS ZARZA
Idazkaria: Mª Montserrat PEREZ GARCÍA

Kideak:

- José Manuel MAIZ URRETAGOYENA
- Lucrecia MARTINEZ CAJE
- Mª Aranzazu ALBISU OTAÑO
- Ibone ACURIOLA BARRIO






ELKARGOKIDETZEAREN ARGAZKIA

2022


ELKARGOKIDEAK GUZTIRA: 4.634 profesional

Gizonak
42%



Emakumeak
58%

Jubilatuta
19.5%



Lanean
80.5%


ADINA:

	Total	Gizonak	Emakumeak
35 urtetik beherakoak	891	210	681
35 - 44 bitartean	837	233	604
45 - 54 bitartean	596	202	394
55 - 64 bitartean	1110	490	620
65 - 69 bitartean	605	366	239
70 gorakoak	595	445	150
GUZTIRA	4634	1946	2688

JARDUERA MOTA:

PUBLIKOA	2711
PRIBATUA	1252
MISTOA	388
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	60


ELKARGOKIDETZEAREN BILAKAERA



POR ESPECIALIDAD

Especialitatea	Sexua	Guztira	Guztira
ALERGOLOGIA	Gizonak	9	17
	Emakumeak	8	
ANALISI KLINIKOAK	Gizonak	11	40
	Emakumeak	29	
ANALISI KLINIKOAK ETA BOKIMIKA KLINIKOA	Gizonak	0	0
	Emakumeak	0	
ANATOMIA PATOLOGIKOA	Gizonak	14	31
	Emakumeak	17	
ANESTESIOLOGIA ETA ERREANIMAZIOA	Gizonak	68	180
	Emakumeak	112	
ANGIOLOGIA ETA KIRURGIA BASKULARRA	Gizonak	10	17
	Emakumeak	7	
DIGESTIO-APARATUA	Gizonak	30	66
	Emakumeak	36	
BOKIMIKA KLINIKOA	Gizonak	0	1
	Emakumeak	1	
KARDIOLOGIA	Gizonak	41	61
	Emakumeak	20	
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA	Gizonak	5	8
	Emakumeak	3	
KIRURGIA OROKORRA ETA DIGESTIO-APARATUA	Gizonak	81	118
	Emakumeak	37	
AHO ETA AURPEGI-MASAILEKO KIRURGIA	Gizonak	9	12
	Emakumeak	3	
KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIA	Gizonak	114	139
	Emakumeak	25	
KIRURGIA PEDIATRIKOA	Gizonak	6	11
	Emakumeak	5	
KIRURGIA PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA ERREPARADOREA	Gizonak	11	21
	Emakumeak	10	
KIRURGIA TORAZIKOA	Gizonak	8	9
	Emakumeak	1	
DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIKOA ETA BENERELOGIA	Gizonak	14	38
	Emakumeak	24	
ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOA	Gizonak	9	29
	Emakumeak	20	
ESTOMATOLOGIA	Gizonak	68	106
	Emakumeak	38	
FARMAKOLOGIA KLINIKOA	Gizonak	0	2
	Emakumeak	2	
GENETIKA KLINIKOA	Gizonak	0	0
	Emakumeak	0	
GERIATRIA	Gizonak	16	27
	Emakumeak	11	
HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIA	Gizonak	15	61
	Emakumeak	46	
HIDROLOGIA MEDIKOA	Gizonak	0	3
	Emakumeak	3	
INMUNOLOGIA	Gizonak	2	3
	Emakumeak	1	
LANEKO MEDIKUNTZA	Gizonak	63	131
	Emakumeak	68	
GORPUTZ-HEZKUNTZAKO ETA KIROL MEDIKUNTZA	Gizonak	27	34
	Emakumeak	7	
FAMILIA ETA KOMUNITATEKO MEDIKUNTZA	Gizonak	296	1007
	Emakumeak	711	
MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREABILITAZIOA	Gizonak	20	53
	Emakumeak	33	

MEDIKUNTZA OROKORRA	Gizonak	436	1135
	Emakumeak	699	
MEDIKUNTZA INTENTSIBOA	Gizonak	28	65
	Emakumeak	37	
BARNE MEDIKUNTZA	Gizonak	118	192
	Emakumeak	74	
LEGE ETA AUZITEGI MEDIKUNTZA	Gizonak	5	10
	Emakumeak	5	
MEDIKUNTZA NUKLEARRA	Gizonak	4	7
	Emakumeak	3	
PREBENTZIO MEDIKUNTZA ETA OSASUN PUBLIKOA	Gizonak	13	25
	Emakumeak	12	
AKREDITATUTAKO MEDIKUNTZA OROKORRA	Gizonak	7	16
	Emakumeak	9	
MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA	Gizonak	11	25
	Emakumeak	14	
NEFROLOGIA	Gizonak	13	30
	Emakumeak	17	
NEUMOLOGIA	Gizonak	28	54
	Emakumeak	26	
NEUROKIRURGIA	Gizonak	14	17
	Emakumeak	3	
NEUROFISIOLOGIA KLINIKOA	Gizonak	5	8
	Emakumeak	3	
NEUROLOGIA	Gizonak	37	62
	Emakumeak	25	
OBSTETRIZIA ETA GINECOLOGIA	Gizonak	53	162
	Emakumeak	109	
OFTALMOLOGIA	Gizonak	43	84
	Emakumeak	41	
ONCOLOGIA MEDIKOA	Gizonak	8	34
	Emakumeak	26	
ONCOLOGIA ERRADIOTERAPIKOA	Gizonak	11	23
	Emakumeak	12	
OTORRINOLARINGOLOGIA	Gizonak	33	56
	Emakumeak	23	
BESTE BATZUK	Gizonak	0	0
	Emakumeak	0	
PEDIATRIA Y BERE ESPARRU GUZTIAK	Gizonak	82	260
	Emakumeak	178	
PSIKIATRIA	Gizonak	62	151
	Emakumeak	89	
HAUR ETA NERABEEN PSIKIATRIA	Gizonak	0	0
	Emakumeak	0	
ERRADIODIAGNOSTIKOA	Gizonak	67	130
	Emakumeak	63	
ERREUMATOLOGIA	Gizonak	13	21
	Emakumeak	8	
UROLOGIA	Gizonak	36	49
	Emakumeak	13	



ELKARGOKIDETZEEN MUGIMENDUAK 2022AN

ALTAK: 251

BAJAK: 113

- **BESTE PROBINTZIA BATERA : 90**
- **JARDUERA ETEN DUTELAKO: 17**
- **ATZERRIRA DOAZELAKO: 6**
- **HIL DIRELAKO: 18**

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

2022 URTEAK POLIZA AURREKO URTEAN BEZALAXE MANTENDU DA.
AURTEN AMAITUKO DA KONTRATUA.

- **2022AN ASEGURUA DUTENAK: 2.790 ELKARGOKIDE**
- **BAJAK 2022/12/31 EPEAN: 258 ELKARGOKIDE**
- **ALTAK EDOTA ZABALTZEAK: 254 ELKARGOKIDE**

ELKARGOKO KUOTA

2022an kuotak mantendu egin dira. Ondorengoak dira:

> Elkargokide kuota (hiruhilero) _____ 64 €

> Kuota murriztua (hiruhilero) * _____ 32 €
*karrera amaitu eta ondorengo lau urteetan (hiruhilero)

Gainera, ondorengo aportazioak ere badira, hautazkoak direnak:

> Ohorezko elkargokide kuota (hiruhilero).----- 14€

Onurak: Zure familiak onura ekonomikoa izango du zu hiltzen zarenean.

> Bazkide babeslearen kuota (hiruhilero). _____ 23,77 €

Babes Sozialerako OMC-ren Fundazioa Espainia mailako sendagileen elkartasunerako organoa da. Kuota hau ordainduz, behar bereziak dituzten sendagileek laguntzak jasotzea ahalbidetzen duzu, eta, era berean, inoiz zuk ala zure familiak beharrik izango balu, fondo honen onuradun bihurtuko zara.

> LAGUNTZEN KATALOGORA JOAN

2022an HILDAKO ELLARGOKIDEAK:

JESÚS ORTEGA VEGA JAUNA - 31.01.2022

JOSE MANUEL CASANOVA RIVERA JAUNA- 15.02.2022

JUAN CRUZ TRECET MARTINEZ ILARDUY JAUNA- 22.02.2022

JOSÉ J. AZCOAGA MENDIZABAL JAUNA- 13.03.2022

CRISPÍN BATIZ OLABEGOYA JAUNA- 09.04.2022

ELENA ECHEVERRIA ARIZMENDI ANDEREA- 04.06.2022

JOSÉ ZURIARRAIN ALTOLAGUIRRE JAUNA- 05.07.2022

IÑAKI ALBERDI SANTOS JAUNA- 19.07.2022

MARÍA DEL CARMEN MARTINEZ DE UBAGO AGUADO ANDEREA - 24.07.2022


ALEJANDRO JOSÉ RE JAUNA - 21.08.2022

JUAN ANTONIO IBARLUCEA ELVIRA JAUNA- 27.08.2022

FRANCISCO JOSÉ RODRIGUEZ MAZORRIAGA JAUNA- 29.10.2022

FERMÍN BENEGAS RECONDO JAUNA- 31.10.2022

JUAN JOSÉ BILBAO LARRAÑAGA JAUNA- 03.11.2022





2022-KO JARDUERA AIPAGARRIAK

HAUTESKUNDEAK ETA COMGI LANTALDEAREN BERRITZEA

2022ko uztailan Elkargoko Gobernu Batzordea hautatzeko hauteskundeak ospatu ziren. Ordura arte Manuel García Bengoecheak burutu zuen lehendakaritza.

Ekainaren 16an, Carmen Solorzano-ren zerrendak irabazi zituen hauteskundeak eta hilaren 22an kide guztiek euren kargua hartu zuten. Datozen 4 urteetan Elkargoaren Gobernu Batzordearen ardura izango dute.



KONBENTZIO MEDIKOA

Pandemiak ekitaldi guztiak eten zituen bi urtez baina, azkenean, 2022 urteko azaroan, Sendagileen Kontseilu Orokorrak antolatutako Konbentzio Medikoa ospatu ahal izan zen Madrilén. Bertan, Espainiako Sendagile Elkargoetako ordezkariak biltzen dira, Elkargoetako esperientziak trukatu, harremanak estutu eta gaur egungo eta etorkizuneko medikuntzaren inguruan hausnartzeko. Aurten hainbat jai joratu ziren, besteak beste, transformazio digitala, aldaketa klimatikoaren ondorioak osasunean, osasun pribatuaren papera, kode deontologikoaren berrikuntzak edota profesional medikoen konpetentziak.

Aurten, gainera, Covid-19ko pandemiaren eraginez lanean zeuden bitartean hildako 125 sendagileri omenaldia egin zitzairen. Gipuzkoako hiru sendagile zeuden horien artean eta denak lan eta konpromisoaren eredu dira guztiontzat.



► Blanca Morera eta Wilson Astudillo gure lankideei errekonozimendua

Sendagileen Kontseilu Orokorak Ibilbide Profesionalaren Sarien 5. edizioa ospatu zuen aurten. Elkargoei aurkeztutako hautagai guztien artean, 8 sendagileren ibilbideak goraipatu zituzten ekitaldi polit batean. Zortzi horien artean bi gipuzkoar: Blanca Morera eta Wilson Astudillo. Elkargoko presidentea Carmen Solorzano bertan izan zen beraiekin sari banaketan.

Beste Laguntza-Esparruen SARIA: Blanca Morera

Morera doktorea Beste Laguntza-Esparruen kategorian saritua izan zen. Medikuntzan lizentziatua eta Psikiatrian eta Lege Psikiatrian espezialista, Bioetikan da aditua gure lankidea eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordeko (CEA) presidentea ere bada. Iaz, Eutanasia Arautzeko Legea onartu zenean, eutanasia eta medikoki lagundutako suizidioa despenalizatzeko eta arautzeko aukerari buruzko jarrera etiko eta baloratiboari buruzko txostena garatu zuen adituetako bat izan zen. Dokumentu hori oso interesgarria izan zen osasun-arloko profesionalei gaian kokatu eta hausnartzen eta laguntzeko.

Accesit-a Humanitate eta Lankidetzan: Wilson Astudillo

Wilson Astudillo neurologoa da eta bere gizatasunagatik eta zerbitzatzeko bokazio handiagatik nabarmentzen da. 30 urte daramatza boluntario lanean eta Paliativos sin Fronteras GKEko buru da 2009an erakundea abian jarri zenetik. Zainketa Aringarriei buruzko 25 libururen argitaratzailea da, baita gai horri buruzko ikastaro eta prestakuntza ugariren zuzendaria ere. 1992an Zainketa Aringarrien Euskal Elkartearen bazkide fundatzailea izan zen, eta 2001ean Donostiako Udalaren Hiritar Merezimenduaren Domina jaso zuen. Aipatzekoa da, gainera, Wilson Astudillo doktoreak oso begirada zabala duela zainketa aringarriei buruz, gaixoen bizitza hobetzeaz gain, haien familia eta, oro har, gizartearena ere hobetzeko lan egiten baitu.

Aitorpen hori Tomás Cobo doktoreak eman zion, CGCOMeko presidentea.



► Ohorezko Elkargokide Nazionalaren domina zilarrezko ikurrarekin Manuel García Bengoechearentzat

Medikuen Elkargoen Kontseilu Nagusiak (CGCOM) 2022ko Konbentzio Medikoa baliatu zuen gure Elkargoko presidente ohiari, Manuel García Bengoecheri, zilarrezko ikurra duen Ohorezko Elkargokide Nazionalaren kondizioa aitortzen dion domina emateko. Estatuko beste presidente ohiekin jaso zuen Bengoecheak bere saria.



SENDAGILEAREN EGUNA

Beste urte batez, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak 70 urte bete zituzten eta ohorezko elkargokide bihurtu ziren mediku elkargokideen ibilbide profesionala nabarmendu zuen urrian.

Azjen bi urteetan, pandemia dela eta, ezinezkoa izan zen topaketa hau familiartean egitea. Baina aurten, azkenean, ekitaldi polita egin ahal izan genuen Tabakaleran, lehenik zinema aretoan eta ondoren eraikinaren prisma terrazan, non lunch-a zerbitzatu zen. Izan ere, Elkargoko ekitaldi-aretoa txiki geratu da azken urteetan omenaldia jasotzen duten ohorezko elkargokide kopuruarentzat.

Eguerdiko 12:00etan hasi zen ekitaldia. Aurkezlea Elkargoko idazkari nagusia izan zen, Belen Alonso, eta, zalantzarik gabe, gonbidatuen arreta bereganatu zuen, mediku izateak zer esan nahi duen, lanbideak zer erakusten digun eta medikuntzaren bokazioa eta grina zein diren hausnartuz. Idazkari nagusiarekin batera, Carmen Solórzano Elkargoko presidentea egon zen ia une oro. Lehendakariak, sariak banatzeaz gain, medikuaren eta pazientearen arteko harremanaren eta konfiantzaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen. Ildo beretik, harreman hori ongi islatu du Iñigo Aristegi eskultore donostiarrak ohorezko medikuei emandako eskultura bakoitzean.

Ohorezko bihurtu ziren elkargokide guztiez gain, 2022ko Ohore Goreneko Elkargokideari ere omenaldi polita egin zitzaien: Arturo Gabella Blanco doktorea.

Ekitaldiari amaiera emateko, lehen aldiz Celaya Doktorea Saria eman zen, Elkargoa hobetzen eta mediku lanbidea babesten laguntzen duten pertsonaei zuzenduta. Harriduraz eta emozioz jaso zuen Manuel Garcia Bengoechea doktoreak 2022ko saria, azken 8 urteetan Elkargoko buru izanik egin duen lanagatik.



> ERREPORTAJE OSOA IKUSI

2022 - OHOREZKO SENDAGILEAK

AGUSTÍN GUTIÉRREZ LAZPITA
PEDRO ARRATIBEL ALBIZU
IGNACIO HERNAEZ MANRIQUE
ISABEL BLASCO OLAECHEA
INÉS ASEGUINOLAZA IPARRAGUIRRE
ELENA ARCELUS ARBULU
ADOLFO HERRERO OCAMPO
MARIA DEL CARMEN SOLORZANO SANCHEZ
RAFAEL LUQUE DIEZ
MARIA JESÚS SAGRARIO ELORZA OYANGUREN
CARMEN ROMANO BASARTE
FRANCISCO J. AGUIRRE FRANCO
JESÚS MARIA POLO VELAMAZAN
CARLOS CALDERON GOMEZ
PEDRO OTAZUA MENDIZABAL
ROMAN GANZARAIN GOROSABEL
LUIS ORRUÃ'O ALBIZU
CARLOS ARTURO SAIZ RAMOS
JOSE ANTONIO ARAMENDI MANCISIDOR
MARIA TERESA MIGUEL ANGULO
MARIA CONCEPCION ABALDE MIGUEL
RAMÓN TELLERIA ELORZ
LUIS MARIA ELORZA ORUE
MARIBEL GARTZIA GOIKOETXEA
ENRIQUE URCULO BAREÃ'O
MIGUEL DE LA CRUZ ALFAGEME
KOLDOBIKA SALINERO GANZABAL
JAVIER MARIA BUSTO SAGRADO
ÁNGEL MORALES SANTOS
ALFREDO IGLESIAS RUIZ
ELENA PUJOL AZCUE
MARIA CARMEN OTERMIN FAGOAGA
PEDRO-M. BELLOSO CEA
RICARDO BENGOCHEA TELLECHEA
JABIER AGIRRE LASARTE
FRANCISCO MARTINEZ GARCIA
JOSE IGNACIO RECALDE YURRITA
VICTOR RUBIO ARRIBAS
MARIA JESÚS MANCISIDOR AGUINAGALDE

CARMEN DEL HIERRO LOPEZ GOICOECHEA
M.CARMEN TELLERIA ECHEVERRIA
JOSE MANUEL GARBIZU ESTEBAN
JOSE MARIA COLLADO ECHEVERRIA
ANTONIO ARBULU ARIN
MIREN BAKARNE ALEGRIA AYERDI
DOMINGO CARRO ESPASANDIN
JESÚS MARIA MURILLO GUIBERT
VICTORIA CLARAMUNT PALOU
RICARDO REZOLA SOLAUN
FRANCISCO JAVIER OLASCOAGA URTAZA
ANTONIO LUIS BELTRAN IGUIÃ'O
MANUEL PRADA LAYA
IÑAKI GENUA GOENA
JUAN GRAU PAUNERO
JOSE ANTONIO SANCHEZ MIGUEL
FRANCISCO JAVIER EIZAGUIRRE AROCENA
LUISA RINCON GARMENDIA
GLORIA AMELIA DE TENA PALOMAR
FERMIN ALBERDI ODRIOZOLA
ÁNGEL VILLANUEVA MATEO
FRANCISCO JAVIER URETA ATUCHA
SEBASTIÁN VALLESPER BISQUERRA
MARIA ÁNGELA RODRIGUEZ ARRONDO
JOSE FELIX ESTEBAN GOMEZ
ALFREDO TAPIA GARCIA
FRANCISCO JAVIER ARANA ALBERDI
FRANCISCO IBARRONDO ARMENDARIZ
IGNACIO LIZARRAGA VIDAURRETA
HUGO JOSE FERRARO MANERA
DIONISIO ETXEBERRIA OLASO
JUAN JOSE BILBAO LARRAÑAGA
JOSE MARIA BERECIARTUA EIZMENDI
LOREN OTERMIN SAGASTIBELZA
MARIA PILAR GOENAGA ECHEVESTE
DOMINGO MARTIN SALVADOR
JOSE MARIA OCHAGAVIA URRIZ
MIGUEL ÁNGEL VARONA ALONSO
JUAN BAUTISTA ZAMBRANO ZAMBRANO

SENDAGILEEN 13.TXIRRINDULARITZA TXAPELKETA

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak Sendagileen XIII. Txirrindularitza Txapelketa hartu zuen 2022an. Kirol honen zale diren elkargokide askok gogotsu espero izaten dute urtero ekitaldi hau, kirolarekiko eta medikuntzarekiko grina uztartzeko balio duena eta adin, jatorri eta espezialitate mediko desberdinetako medikuen arteko harremana eta adiskidetasuna bultzatzen laguntzen duena.

Txapelketa S.C.D. Donosti Gain Klubak eta Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak antolatu zuten, Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren eta Espainiako Txirrindularitza Federazioaren araudipean, eta Rural Kutxa, AMA eta Salto enpresaren babesarekin izan zuen.

200 lehiakideek 60 kilometro inguru egin zituzten euskal mendi eta kostaldeko bide ederretan barrena, hiriaren erdigunetik abiatuta, hain zuzen ere, gure elkargoaren egoitza dagoen tokitik, Orioko herritik igaro eta ibilbidea Igeldo mendiaren gainean amaitu zen. Eguraldia lagun, giro ona nagusitu zen goizetik, argazkietan eta bideoetan ikus daitekeen bezala:

> ARGAZKI GUZTIAK IKUSI

Gipuzkoako taldearen argazkia



Kategoria orokorretako irabazleak





2022KO MUGARRIAK

BULEGO TEKNIKOAK

Elkargoaren bulego teknikoak Gipuzkoako profesional mediko guztiei euren lana aurrera eramaten laguntzeko lan egiten du, baita sendagile guztiak ongi ari direla bermatzeko, gaixo guztien eta gizarte osoaren segurtasunerako.

Urtero, elkargokideei arreta emateaz gain (aurrez aurre, telefonoz eta posta elektronikoz) izan ditzaketen izapide, kontsulta eta galderei erantzunez, herritarrei ere ematen zaie zerbitzua: mediku-ziurtagirien salmenta, informazioa, kexak, iradokizunak....



2022an aipatu beharrekoak:

> **TicketBAI:** Elkargoa TicketBAI araudiari egokitu zaio borondatezko aldia. Gainera, jarduera pribatua duten elkargokide askori sistemara egokitzen lagundu die, zalanza ugari konponduz eta sistema hedatzeko material lagungarria eginez.

> **Prozesuen automatizazioa:** Elkargoaren fakturazioaren sistematizazioa.

> **Medikuentzako Espainiako Txirrindularitza Txapelketaren bulego teknikoak:** Txapelketaren aurreko hilabeteetan, Elkargoaren bulego teknikoak lan handia egin zuen: backoffice eta alten, bajen eta aldaketen inskripzioak; gure probintzian egindako Txirrindularitza Txapelketarekin lotutako zalantzak eta kontsultak...

> **Praktiketako langilea:** Bigarren urtez, Elkargoak Nazaret prestakuntza-zentroko Administrazio eta Finantzetako ikasle bat sartu zuen martxotik maiatzera, BAMEen elkargo-aldiarekin eta Txirrindularitza Txapelketaren kudeaketarekin batera.

> **Prestakuntza:** Langile batzuk Excel Aurreratuan trebatu dira Gipuzkoako Ganberan.

> **FPSOMCen Urteko Jardunaldia:** Alberto Etxaburu Elkargoko bulego teknikoko zuzendariak "Mediku senior eta erretiratuen arreta eta babesa. Zahartze pertsonala eta erretiro profesionala; proiektu propio bat " mahai-inguruan parte hartu zuen, zehazki Gizarte Babeserako Fundazioaren (FPSOMC) urteko jardunaldian. Jardunaldi horretan, Elkargoetan Fundazioaren informazioa lantzen duten pertsonen dei egiten zaie, izan ere, euren baitira Fundazioaren lana aurrera eramaten laguntzen dutenak.



AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Elkargoaren Aholkularitza Juridikotik, Jon Pellejerok aholkularitza eskaintzen die hala behar duten elkargokide guztiei, baita Elkargoko organo guztiei ere: Gobernu Batzordea, Batzorde Iraunkorra, Batzorde Deontologikoa eta abar.

2022an aipagarriak

2020an aurrez aurreko kontsultak murriztu ondoren (180 inguru), horiek berreskuratzen joan ziren 2021ean (280), eta 2022an zifra horiei eutsi zaie. Hala ere, kontsulta telematikoek (telefonikoak eta mezu elektronikoak) gora egiten jarraitzen dute, eta aurreko 900 telefono-dei inguru zenbatu dira.



Beraz, aurreko urtean adierazitakoa berresten da; izan ere, aurrez aurreko kontsulten murrizketa mantendu egingo zela aurreikusten zen, dokumentazioa posta elektronikoz bidaltzeko erraztasunagatik eta horrek dakarren erosotasunagatik.

Hala ere, komenigarria da elkargokideak Elkargora etortzea landu beharreko gaiak hala eskatzen badu. Aurrez aurreko kontsulta batek erraztu egiten du batzuetan konplexuak diren gaien lantzea eta kasu batzuetan horien inguruko azalpenak hobeto ulertzen dira aurrez-aurreko bilera batean.

Egindako erreklamazioei dagokienez, BAMEen aparteko ordainsariari buruzko erreklamazioak azpimarra daitezke. Ordainsari hori modu masiboan hasi zen 2022aren amaieran. Aurretik demanda gutxi batzuk jarri ziren erreklamazioaren bideragarritasun judiziala egiaztatzeko, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren aurrean erabaki zen BAMEei modu masiboan jakinaraztea erreklamazio hori egiteko aukera.

2022an joera horri jarraitu dio, eta ez dago jasota erantzukizun profesionaleko kasuen ondoriozko jarduketa medikoen aurkako erreklamazio penalik.

Bide zibileko erreklamazioei dagokienez, 2022an erreklamazioek behera egin dute, baina esan daiteke gehiago oinarritu direla, hau da, eskari gutxiago baina gehiago justifikatu direla.

2022an egin diren jarduketan eta kontsulten artean, aipatzekoa da erretiro aurreratueterako kontsulten igoera, batez ere, lehen mailako arretako elkargokideenak.

Azkenik, egoera berrizailatzat jo dezakegu ondorengoak: BAMEri diziplina-espedienteak irekitzea. Urteak dira Medikuen Elkargoan BAMEren espedienteen berri ez zegoela, eta azken hilabeteetan hainbat espediente ireki dira hainbat arrazoiengatik. Joan den urtean Historia Klinikoetan sartzea legez kanpokoa zela eta hori saihestea zein erraza zen ohartarazten zen bezala, kasu honetan ere argi eta garbi saihets daitezkeen egoerak dira gertatutakoak, eta, beraz, BAME bakoitzari dagokio legezkotasuna betetzea.

ELKARGOKO EGOITZAN IZANDAKO JARDUERAK	
Batzordearen txosten juridikoak eta kontsultak, idatziz	18
Txosten juridikoak, medikuaren eskariz eginak	21
Elkargokideei aholkularitza	
Aurrez aurreko kontsulta pertsonalak, Elkargoaren egoitzan	293
Bertaratu gabeko kontsultak / e-mailak (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	2.000
Bertaratu gabeko kontsultak / telefono bitartez	900
Irekitako espedienteak: Egindako kontsulten ondorioz hainbat espediente ireki dira formatu fisikoan, jorratutako auzi horien izapidetzea/erreklamazioa/erantzuna bideratzeko	230
Medikuen kontra jarritako kexak	14
Jarduketa judizialak	
Jurisdikzio soziala	33
Administrazioko Auzien Jurisdikzioa. (Osakidetza)	18
Jurisdikzio zibila eta zigor-arlokoa / Erreklamazioak / Erantzukizun profesionaleko epaiaketak	
A) Demandaren aurreko jarduketak	15
B) 2022. urtean izapidetan zeuden auziak	8
C) 2022. urtean ebatzitako auziak	5
D) Itunak	0

ESKAINITAKO BESTE ZERBITZUAK:

- Lanbide-sozietateen eta alten eraketak.
- Aholkularitza diziiplina-espedienteetan.
- Jarduera pribatua hasten duten medikuen JEZko altak.
- Kontsulten alta Osasunean.
- Osasun Publizitatearen Erregistroko alta.
- Aurreerretiroari buruzko aholkularitza.

KOMUNIKAZIOA

Komunikazio Sailak ohiko lanarekin jarraitu du, eta elkargokideei zerbitzua eman die ohiko buletinekin eta webgunearen etengabeko eguneraketarekin, baita Elkargoaren aldizkari digitalarekin eta sare sozialekin. Horrez gain, hedapen-ekintza ugari egin ditu komunikabideetan, gure mezuak herritarrei helarazteko.

Sare sozialen datuak

Gure sare sozialek hazten jarraitzen dute, eta ezinbesteko komunikazioa, gure kide egitea, bai eta antzeko eragile eta erakundeekin eta gizartearekin ere.

Hemen gaude:



WWW.COMGI.EUS

Komunikabideetan argitaratutako artikulu garrantzitsuak:

- «La Atención Primaria en Euskadi lleva mucho tiempo en peligro»
- «Trabajaremos para que la Atención Primaria no esté en peligro»
- La atención primaria está muy sobrecargada, hay que darle una vuelta
- Mediku elkargoak ohartarazi duenez, sendagileek «ezin dute gehiago»
- Nondik tira ez duen korapiloa
- Un ovillo difícil de desenredar



Medikuen Ahotsa aldizkari digitala:

Medikuen Ahotsa elkargo-aldizkariak komunikazio-tresna izaten jarraitzen du, eta elkargoaren eta elkargokideen jardura ezagutarazten du, elkarriketen, erreportajeen, iritzi-artikuluen eta abarren bidez. Nabarmentzekoa da Donostia Unibertsitate Ospitaleko Etika Batzordearekin lankidetzan jarraitzen dugula eta bi hilean behin artikulu interesgarri bat prestatzen dute, sendagileek beren egunerokoan aurki ditzaketen egoera eta dilema etikoetan laguntzeko.

2022an gehien irakurri ziren artikuluak:

- Los peligros del falso certificado médico: para el médico y para el paciente (delitos de los arts. 397 y 399 CP).
- Transexualidad e intersexualidad en pediatría: dos conceptos distintos
- La emisión de informes clínicos o certificados es una obligación legal de los médicos y un derecho de los paciente.
- La lucha de las primeras Emakumeak médicas
- Gipuzkoa acogerá el Campeonato de España de Ciclismo para Médicos que se celebrará el 21 de mayo

AKORDIO ETA HITZARMENAK

BANKOArekin akordioa

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak Bankoa ABANCArekin zuen lankidetza-hitzarmena berritu zuen, elkargokideen eta haien familien beharretara egokitzeko asmoz. Horrela, finantza-erakundeak kolektibo horren eskaera nagusiak biltzen ditu, eta kreditu-irtenbideak dituen proposamen integral bat aktibatzen du, baina baita inbertsioko eta aseguruetak berariazko alternatibak ere.

Bankoa ABANCAk, gainera, lotura estua du COMGI Fundazioarekin bere patronatuko kide baita. Lankidetza horri esker, azken urteotan era guztietako prestakuntza-jarduerak egin ahal izan dira profesional medikoentzat, bai eta COMGI Fundazioa eta Lankidetzarako Laguntzak sarien deialdiak ere, finantza-erakundeak egiten duen ekarpen ekonomikoari esker.



Hitzarmena Maria Cristina hotelarekin

Elkargoak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuen 2022an Donostiako Maria Cristina hotelarekin. Horren bidez, lanegunetan eta igande gauetan tarifa onuragarriak jaso ditzakete elkargokideek. Ikusi dena [hemen](#).

Beharpenak Erriberako BPXPORTen

Kirol-zentro horrekin egindako akordioari esker, elkargokide guztiei eta lehen mailako senideei oinarritzko tarifaren gaineko % 20ko deskontua eskaintzen zaie, bai eta prezio bereziak ere, bai banakako tarifyan, bai familia-tarifyan. Elkargokideak elkargokide-txartelarekin identifikatu beharko dira. Ikus dena [hemen](#)

Ukrainari laguntza

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak, 2022an, 5.000 euroko dohaintza berezia eman zion Caritas Gipuzkoa GKEari, oso-osorik Ukrainara bideratua. Dohaintza hori martxoan onartu zen, herrialde honetan Errusiaren inbasioa hasi eta aste gutxira, Ukrainako herritarrei laguntza humanitarioa emateko asmoz, eta 5.000 euroko zenbatekoa ematea erabaki zen, hau da, elkargokide bakoitzeko euro 1 pasatxo. Bertako hainbat erakunde baloratu ostean, dohaintza Gipuzkoako Caritasi egitea erabaki zuen.





ORGANIZACIÓN
MÉDICA COLEGIAL
DE ESPAÑA



FUNDACIÓN PARA LA
PROTECCIÓN SOCIAL

MEDIKUAK, MEDIKUAK BABESTEN

LAGUNTZA PRESTAZIOAK

OMC-ren Gizarte Babeserako Fundazioa Espainiako mediku kolegiatu guztien elkartasun-organoa da. Kolektibo horren helburu nagusia premia handiena dutenei arreta eta babesa ematea da, eduki ditzaketen beharrei erantzunez. Horretarako, laguntzak ematen ditu mendekotasun eta ezintasun egoeretan, osasun arazoetan edo bizitza profesionala eta familia bateragarri egiteko egoeretan.

Elkargoak, fundazio honen bitartez, laguntza eskaintzen die premia handiena duten elkargokideei edo senideei. Gipuzkoan, 2.613 elkargokide daude Fundazioari borondatez atxikita, eta urtean 246.233,43 euroko ekarpena egiten dute.

Ekarpen horri esker, Gipuzkoan honako hauei eman ahal izan zaie gizarte-babesa:

- > 3 mediku desgaituak
- > 4 mediku erretiratu
- > 6 zuztasun-beka (desgaitasuna duen umezurtza)
- > 14 zuztasun-beka (21 urtetik beherakoei)
- > Alarguntza-laguntza 1
- > 4 zuztasun-beka goi-mailako ikasketa ofizialearako
- > 1 adinekoen egoitzarako laguntza
- > 4 zuztasun-laguntza titulu ofiziala emateko
- > 3 kontziliazio-laguntza

Fundazioari kuota hori borondatezkoa egin zenetik, elkargokide batzuek baja eman dute eta elkargoko kide berriek, maiz, ez parte hartzea erabakitzen dute. Hori dela eta, azken urteotan beherakada handia izan du bildutako diruak.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoan azpimarratzen dugu Fundazio honek duela 100 urte baino gehiagotik egiten duen lan handia, profesional medikoei zein haien familiei laguntza emanez, gehien behar dutenean, eta eskaintzen dituen prestazioak benetan interesgarriak dira inoiz behar izanez gero.

Catálogo de Prestaciones

Conjunto de servicios, prestaciones y ayudas de protección social aprobados anualmente por el Patronato de la Fundación. Se agrupan en torno a seis ejes estratégicos de protección.

Prestaciones

Atención social

Asistenciales

Dependencia - Discapacidad

Conciliación

Prevención, Promoción y Protección de la Salud del Médico

Protección en el Ejercicio Profesional



comgi

Gipuzkoako Sendagileen Elkargoa
Colegio de Médicos de Gipuzkoa

WWW.COMGI.EUS



943 27 63 00



12 Frantzia Pasealekua, Donostia

